

Ikasleok, COVID-19aren pandemiaren eragina eta globalizazioa dela-eta, **azalpen hauek eman nahi ditugu 2020-2021 ikasturterako mugikortasun programen gainean:**

Arau orokor gisa:

A.- UPV/EHUK ez du berariazko jakinarazpenik egin krisi honetan nola jokatu behar den azaltzeko; beraz, dekanordetza honek gomendioak bakarrik egin ditzake. Eskatzen dizuegu oso kontuan har ditzazuela joan behar duzuen herrialdeetako osasun sistemen baldintzak. Zuen esku uzten dugu mugikortasunarekin aurrera jarraitzeko erabakia.

B.- Egoera egunetik egunera aldatzen da, eta ditugun ekintza aukerak ere bai; beraz, une honetan ezin da ezer bermatutzat eman.

C.- Jakina, ez duzue ez gasturik ez erosketarik egin behar harik eta mugikortasuna egingo duzuela ziur egon arte

1.- Oraingoz, **egiten ari ginen bezala jarraituko dugu prozesuekin**; denbora igaro eta mugikortasunerako unea hurbildu ahala, kasu bakoitzean agertzen diren inguruabarretara egokituko gara.

2.- Baldin eta helmugako unibertsitateak 2020/2021 ikasturteko lehen lauhilekoko mugikortasuna **ofizialki bertan behera gelditu dela jakinarazten badu**, bigarren lauhilekora aldatzea eska daiteke.

3.- **Mugikortasun programa guztietako ikasleek berresleitzeko aukera izango dute, baldin eta helmugako unibertsitateek mugikortasun hori bertan behera utzi badute.**

Baldintza hauek kontuan hartuta egingo da berresleipena:

- UPV/EHUko Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen eta helmugako unibertsitatearen oniritzia.
- Ikaslearen hizkuntza eskakizuna.
- Plazarik izatea.
- Ez da inola ere bermatzen mugikortasuna egin daitekeenik.
- Ez da bermatzen berresleipena kasu guztietan egin daitekeenik.

Nazioarteko Harremanetarako Errektoreordetzak (Leioa) **[webgune bat du, non bertan informazio gaurkotua ematen baitu etengabe](#)** gertatzen ari diren egoera berriei buruz, eta, bestalde, **ikasleei honako hauen berri emateko** eskatzen digu:

COVID-19ak eragindako pandemiaren nondik norakoa iragartzea ezinezkoa denez, Learning Agreement edo Akordio Akademikoa koordinatzaileak eta ikasleak sinatuko dute helmugako unibertsitatearen onarpen eskakizunak betetze aldera soilik, eta eduki hori egiazkoa izango da, baina alarma egoeraren deklarazioari buruzko 463/2020 Errege Dekretuan ezarritako administrazio epeak etetearen ondorioek eraginda egongo da.